

**DONOSTIA KULTURAN
EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO
PLANA
(2018-2022)**

**PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA
EN DONOSTIA KULTURA
(2018-2022)**

AURKIBIDEA
INDICE

0. - Sarrera	4 or.
Introducción	
I. - Ingurune juridikoa	8 or.
Contexto jurídico	
II- 6. plangintza aldiaren eragin eremua eta epea	11 or.
Ámbito de aplicación y periodo de vigencia del 6º periodo de planificación	
III.- Euskarazko atalak	14 or.
Unidades administrativas en euskera	
IV.- Plan Estrategikoa 2018-2022	16 or.
Plan Estratégico 2018-2022	

V. – JARRAIBIDEAK: Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak; Lanpostuen hizkuntza baldintzak ezartzeko jarraibideak; eta Hizkuntzaren kudeaketa Donostia Kulturaren kudeaketa orokorrean txertatzeri buruzko jarraibideak.

- CRITERIOS: Criterios de uso de las lenguas oficiales; Criterios para la asignación de condiciones lingüísticas de los puestos de trabajo; y Criterios para incluir la gestión de las lenguas en la gestión general de Donostia Kultura.

Aurkibidea28 or.
Índice	
0. Sarrera	34 or.
Introducción	
I. Ardatza: Zerbitzu hizkuntza	35 or.
Eje 1: Lengua de servicio	
1. Erakundearen irudia	35 or.
Imagen de la institución	
2. Bezeroekiko eta herritarrekiko harremanak	40 or.
Relaciones con los clientes y la ciudadanía	
II. Ardatza: Lan hizkuntza	41 or.
Eje 2: Lengua de trabajo	
3. Barne komunikazioa eta lan tresnak	41 or.
Comunicación interna y herramientas de trabajo	
4. Pertsonen kudeaketa	44 or.
Gestión de personas	
5. Kanpo harremanak	45 or.
Relaciones externas	
6. Kudeaketa sistema	46 or.



Sistema de gestión

ERANSKINAK
ANEXOS

- I. eranskina 60or.**
Euskara nabarmentzeko bideak Donostia Kulturako Euskara Planaren eraginpeko komunikazio, argitalpen, iragarki, publizitate kanpaina eta gainerako euskarrietan
Anexo I: medidas para destacar el euskera en las comunicaciones, publicaciones, anuncios, campañas publicitarias y demás soportes comunicativos pertenecientes al ámbito de aplicación del Plan de Euskera de Donostia Kultura
- II. eranskina: toponimoen erabilera 64 or.**
Anexo II: uso de los topónimos
- III. eranskina: errotulazio finkoak, tresneria eta papertegia 66 or.**
Anexo III: rotulación permanente, aparatos y máquinas, y papelería
- IV. eranskina: baliabide informatikoei buruzko xehetasunak 67 or.**
Anexo IV: criterios específicos para recursos informáticos
- V. eranskina: administrazio kontratuen araberako hizkuntza klausulak 68 or.**
Anexo V: Cláusulas lingüísticas en función del tipo de contrato administrativo

SARRERA

Donostia Kulturarentzat proposatzen den Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Udalekoaren irizpide eta lehentasun berberak kontuan izanik egin da.

Euskararen Legean garbi esaten da herritarrek euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela eta administrazioek bermatu behar dietela eskubide hori. Hona hemen, beraz, Legearen oinarriak funtsezkoena: hizkuntza eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzeko neurriak hartzea eta betetzen direla bermatzea.

Euskararen erabilera planetan aurreikusten diren ekintzak, beraz, ez dira izan behar kasuan kasuko langilearen borondatearen ondorio, baizik eta erakundearen gogetaren ondorio.

Zentzu honetan, herri-administrazioan, eta Donostia Kulturaren bereziki, azken urteotan langileak euskalduntzen egin den eta egiten ari den ahaleginaren ondorioz, langile ugari dute euskaraz lan egiteko gaitasuna, maila batean edo bestean-

Aldiz, erabilerari dagokionez, azken urteotan bai herritarrekiko harremanetan bai Donostia Kultura barruan euskara gehiago erabiltzen bada ere, ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazi eta gaztelania da, oraindik, maila handi batean, Donostia Kulturako ohiko lan hizkuntza.

Horregatik, datorren plangintza aldiari langileen hizkuntza gaitasunaz baliatuta, **euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi** egitea da helburua Donostia Kulturaren jardura esparru guztietan, baina batez ere, euskara lan-hizkuntza izan dadin; herritarrekiko harremanetan euskarak zerbitzu hizkuntza izan behar duela barneratuta baitago erakundearen. Hala, Donostia Kulturako Erabilera Planaren helburu nagusia izango da euskara lan hizkuntza izatea administrazioen arteko komunikazioetan eta administrazio barruko jardunetan ere. Izan ere, herritarrek hautatutako hizkuntzan zerbitzua emango zaiela erabat bermatzeko modurik eraginkorrena da euskaraz ere normaltasunez lan egiten duen erakundea lortzea. Gainera, langileek hizkuntza gaitasuna hobetzea lortuko dute, lana euskaraz egiten duten neurrian.

INTRODUCCIÓN

El Plan de Normalización del Uso del Euskera propuesto para Donostia Kultura se ha realizado teniendo en cuenta los mismos criterios y prioridades que los planteados para el Ayuntamiento.

En la Ley del Euskera se expone claramente que la ciudadanía tiene derecho a utilizar el euskera y el castellano, siendo deber de las administraciones garantizar ese derecho. Por consiguiente, el fundamento esencial de dicha ley señala que la ciudadanía tiene unos derechos lingüísticos y que corresponde a la Administración adoptar las medidas necesarias para garantizar su efectivo cumplimiento.

Por eso, las acciones previstas en el plan de uso del euskera no deben ser un acto voluntario de cada trabajador o trabajadora en particular, sino consecuencia de la reflexión realizada por la propia institución.

En este sentido, como resultado del esfuerzo realizado durante los últimos años en la administración pública para la euskaldunización del personal, una gran parte está capacitada para trabajar en euskera, en uno u otro nivel-

Por otra parte, en lo que se refiere al uso, durante los últimos años si bien el euskera se utiliza más tanto en la relación con la ciudadanía como dentro de Donostia Kultura, el conocimiento y el uso no han aumentado en la misma medida, siendo el castellano todavía hoy la lengua habitual de trabajo de Donostia Kultura.

Por ello, teniendo en cuenta la competencia lingüística del personal, el objetivo para el próximo periodo de planificación de Donostia Kultura es realizar el **salto del conocimiento al uso efectivo** en todos los ámbitos: el euskera ha de ser lengua de servicio en las relaciones con la ciudadanía, y lengua de trabajo tanto en la comunicación entre las administraciones como en las actividades administrativas internas.

De hecho, la forma más efectiva para garantizar el servicio a la ciudadanía en el idioma elegido es que Donostia Kultura desarrolle sus tareas en euskera con toda normalidad. Además, el personal conseguirá mejorar su capacidad lingüística a medida que realice su trabajo en euskera.

Euskaraz gero eta gehiago lan egiteak benetako Administrazio elebiduna ahalbidetuko du, euskaraz eta gaztelaniaz lan egiteko prestatuta dagoena. Lehen esan dugun bezala, herritarrekiko komunikazioa herritarrek beraiek hautatzen duten hizkuntzan izango da; administrazioen artekoan, berriz, administrazioek adosten duten hizkuntzan.

Administrazioa euskaraz lan egiteko bidean jartzeak normalizaziorako bidean jartzen gaitu, eta murriztu egiten du bi hizkuntza ofizialen erabileren arteko desoreka erreala.

Lan-hizkuntzan aurrera egiten dugun neurrian, behera egingo dute zerbitzu hizkuntzan gertatzen diren hizkuntza eskubideen urraketek, eta gainera, atalen, zerbitzuen eta erakundeen lan antolamenduan ere gero eta gehiago hartuko da kontuan hizkuntzaren alderdia. Adibidez, atal bateko lana antolatzerakoan, hizkuntzen gaia ere kontuan hartu beharreko osagaia izango da, erabakiko da zer egin euskaraz, zer gaztelaniaz, zer ele bietan, nork egingo duen bata eta bestea, nola banatuko den lana, etab.

Ez dezagun ahaztu, gainera, Donostiako euskararen erabilera normalizatu nahi badugu, Udalak eta Udalaren menpeko erakundeek eredu izan behar dutela eta urrats bat gizartearen aurretik joan behar dutela. Zentzu horretan, gero eta eleaniztunagoa den hiri honen errealitateari erantzuteko, beste hizkuntzen erabilera euskararen normalizazioarekin uztartzeko urratsa eginez, Donostian gehien erabiltzen diren lau hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatua bermatzeko jarraibideak ere ematen dira.

- 6. plangintza aldian, euskara ahozko lan-hizkuntza gisa bultzatu beharra dago: euskara ahoz gero eta gehiago erabiltzea sustatu lankideen artean, lan-bileretan, egoera informaletan... Hizkuntzarekiko segurtasuna lortzen da mintzapraktikaren bidez, eta horrek isla izango du, zalantzarik gabe, idatzizko produkzioan. Berebiziko garrantzia izango du erakundeen planifikazioan ahozkotasanari begira egindako planteamendu orokorrak.

Honekin lotuta, euskararen erabileraren aldeko hizkuntza ohituretan eragitea helburu, Euskaraldia izeneko dinamika soziala Donostia Kulturaren ere martxan jarri zen, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean. Eta datozen urteetan jarraipena izango du.

A medida que se trabaje más en euskera, se posibilitará el bilingüismo real de la administración, con capacidad efectiva tanto en euskera como en castellano. Como se ha mencionado, la comunicación se hará en el idioma que hayan elegido las y los ciudadanos; a su vez, las administraciones decidirán en qué lengua se comunicarán entre sí.

Propiciar que la administración trabaje en euskera es recorrer el camino de la normalización y minimizar el desequilibrio existente en la utilización de las dos lenguas oficiales.

A medida que avancemos en el desarrollo de la lengua de trabajo, se vulnerarán menos los derechos lingüísticos en la lengua de servicio, y además, se priorizará cada vez más el aspecto lingüístico a la hora de organizar los departamentos, servicios e instituciones. Por ejemplo, será imprescindible considerar el tema lingüístico a la hora de organizar un departamento, deberá decidirse qué se realizará en euskera, qué en castellano o en bilingüe, quién se encargará de cada parte, cómo se repartirá el trabajo, etc.

Además, no olvidemos que, si se quiere normalizar el uso del euskera en la ciudad, el Ayuntamiento ha de dar ejemplo y avanzar un paso por delante de la sociedad. En este sentido, para dar respuesta a una ciudad como la nuestra, que cada vez es más plurilingüe, con el propósito de que la normalización del euskera sea compatible con la utilización de otras lenguas, se exponen los criterios lingüísticos para garantizar la convivencia equilibrada entre los cuatro idiomas que más se utilizan en la ciudad.

- En el 6º periodo de planificación, hay que impulsar el euskera como lengua de trabajo: reforzar cada vez más el uso oral del euskera entre los y las trabajadoras, en las reuniones de trabajo, en situaciones informales... La seguridad del empleo de la lengua se consigue utilizándola al hablar, y esto a su vez se refleja, sin ninguna duda, en la producción escrita. El planteamiento general planificado a nivel institucional para impulsar el uso oral tendrá vital importancia.

Igualmente, también en Donostia Kultura se ha puesto en marcha la dinámica social Euskaraldia, con el fin de incidir en los hábitos lingüísticos que favorecen el uso del euskera; se llevará a cabo entre el 23 de noviembre y el 3 de diciembre de 2018. Además, está previsto darle continuación en

- Itzulpen kopurua gutxitzea normalizazioaren beste adierazle bat izango da. Nahiz eta Administrazioa langileak, neurri batean edo bestean, euskaraz lan egiteko eta dokumentuak hizkuntza horretan idazteko prestatuta egon, egia da Administrazioan orain arte egon den dinamika orokorragatik joera nagusia izan dela, eta izaten dela, testu gehienak gaztelaniaz sortu eta gero euskarara itzultzera bidaltzea.

Dokumentuak itzultzera bidaltzetik euskaraz sortzera jauzia egitea da helburua eta horretarako Donostia Kulturak behar duten laguntza eskainiko die langileei.

- Bestalde, jakina da Administrazioa langileen batez besteko adina altua dela eta datozen urteotan langile berri asko sartuko direla gurekin lan egitera. Etorrera hori aukera paregabea izan daiteke sustatzen ari garen euskararen erabilera indartzeko, ez soilik zerbitzu hizkuntzari dagokionez, baizik eta, batez ere, lan hizkuntzaren eremuan aurrerapauso sendoagoak eman ditzagun. Datozen urteetan, Donostia Kulturaren lanean hasiko diren pertsonak euskara gaitasun onekoak izatea aurreikusten da; hori dela-eta, oinarriak ezarri beharko genituzke pertsona horiek Administrazioan lanean hastean, euskaraz naturaltasun osoz jardun dezaten.

Helburua da Administrazioa datozen pertsona horiek euskaraz lanean hastea modu naturalean; gainera, hori pizgarria izan liteke lantaldearen hizkuntza ohiturak aldatzeko. Horretarako uste dugu lanean Administrazioan hasi bezain laster hizkuntza politikan hartutako erabakien berri eman behar zaiela, eta harrera-protokoloa da bide-orria, gure ustez, bide-orri garrantzitsua.

- Prestakuntza orokorraren garrantzia ere azpimarratu nahi genuke lehen hauetan. Normalizazioari begira, dagokion hizkuntza maila egiaztatzea bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra euskaraz ere jasotzea. Neurriak hartu behar dira prestakuntza hori euskaraz eskaintzen dela bermatzeko, eta erraztasunak eman behar zaizkie langileei euskaraz antolatzen diren ikastaroetara joan daitezen.

- Kontratazio irizpideak ere oso zehaztuta jasotzen dira. Horren guztiaren helburua da kontratazio-organoen guztiek, kontratuak burutzean, bete beharreko hizkuntza baldintzak nahitaez sartzea

los próximos años.

- Además, la disminución de las traducciones también será un indicador de la normalización. Aunque el personal de la administración, en una u otra medida, tenga la preparación para trabajar en euskera y redactar los documentos en dicha lengua, es cierto que, por la dinámica habitual que ha habido hasta ahora en la Administración, la tendencia general ha sido, y aún es, crear los textos en castellano y luego enviarlos a traducir al euskera.

El objetivo es realizar el cambio para redactar los documentos en euskera en vez de enviarlos a traducir, y para ello Donostia Kultura ofrecerá al personal el apoyo que necesite.

- Por otro lado, es sabido que la media de edad del personal de la Administración es alta y que en los próximos años se incorporará un gran número de personal nuevo. La llegada de nuevo personal puede ser una oportunidad extraordinaria para reforzar el uso del euskera, y no solamente en lo que se refiere a la lengua de servicio, sino, sobre todo, para avanzar firmemente en el ámbito de la lengua de trabajo. Se considera que en los próximos años las personas que comiencen a trabajar en Donostia Kultura dispondrán de una buena competencia lingüística, por ello, se deberían sentar las bases para que cuando esas personas comiencen a trabajar en la administración realicen todo su trabajo en euskera con total naturalidad.

El objetivo es que esas personas comiencen a trabajar en euskera de modo natural; además, eso sería un estímulo para transformar los hábitos lingüísticos del grupo de trabajo. Por ello es conveniente que, tan pronto como empiecen a trabajar en la administración, se les informe sobre las decisiones adoptadas en materia de política lingüística, para ello la hoja de ruta, muy importante, es el protocolo de bienvenida.

- También queremos destacar la importancia de la formación general. De cara a la normalización, es tan eficaz la acreditación del perfil lingüístico como recibir la formación general en euskera. Debe, pues, garantizarse que tal formación se ofrezca en euskera, y debe facilitarse que el personal acuda a los cursos que se organicen en euskera.

- Los criterios de contratación también están recogidos con detalle. El objetivo es que todos los órganos de contratación inserten necesariamente los requisitos lingüísticos en las carátulas de los



administrazio-kontratuetao karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan. Eta garrantzitsuena: baldintza horien betetze mailaren jarraipena egitea, eta halakorik ezean, beharrezko neurriak hartzea.

Esan bezala, ondorengo orriotan jasotzen diren Euskararen Erabilera Planaren eta jarraibide horien xehetasunak Udalekoen irizpide eta lehentasun berberak kontuan izanik egin dira eta Donostia Kulturak datozen 5 urteetan, izango dituen gida lerroak izango dira.

contratos administrativos y en los pliegos de cláusulas administrativas especiales. Y lo más importante: hacer el seguimiento del cumplimiento de esas cláusulas, y en caso de no cumplirse, adoptar las medidas pertinentes.

Como se ha mencionado, en las siguientes páginas se recogen los detalles de estos criterios, que serán las pautas a seguir por Donostia Kultura en los próximos cinco años.

I.- INGURUNE JURIDIKOA

I.- CONTEXTO JURÍDICO

1.- Arautegi orokorra

Euskal Autonomi Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, euskararen erabilpena arauzkotzekoan dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri-administrazioen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arauz, 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko marko orokorra ezartzen du.

Eta laugarren xedapen gehigarriak honela dio:

“Laugarrena.– 1.– Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez Euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.– Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabiltza, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari emango diote horren berri.”

2003ko abenduaren 22an onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

1.- Normativa general

La política de promoción del uso social del euskera de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca se enmarca dentro de lo establecido por la Ley 10/1982 básica de normalización uso del euskera.

Dicha ley establece el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a relacionarse con la administración pública en la lengua oficial de su elección. Consiguientemente, establece también las obligaciones que atañen a los poderes públicos para garantizar el ejercicio de tal derecho sin límites ni obstáculos.

En desarrollo de lo dispuesto en las citadas leyes, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece el marco reglamentario general.

Y la Disposición Adicional cuarta del Decreto establece:

“Cuarta.– 1.– Las sociedades públicas y los entes públicos de derecho privado dependientes de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi que presten servicios públicos vendrán obligados a garantizar la utilización del euskera y del castellano en aquellos servicios que conlleven una relación directa con el usuario.

2.– Para ello dichas sociedades públicas y entes públicos de derecho privado, aplicando los criterios del presente decreto, estudiarán los objetivos lingüísticos que hubieran de ser de aplicación en cada uno de ellos, y adoptarán las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento, dando cuenta de ello a la Viceconsejería de Política Lingüística.”

El Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, de 22 de diciembre de 2003, así como el Decreto sobre derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, de 1 de julio de 2008, reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.

Azkenik, kontuan hartu beharrekoa da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa. Legearen 6. eta 7. artikuluek xedatutakoaren arabera, euskara tokiko erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu egin beharko da erakundeekin harremanak izateko orduan herritarrak nahi duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

2.- Donostia Kulturak hartutako erabaki eta neurriak euskararen normalizazioari dagokionez

Donostia Kultura Erakunde autonomo zela, hainbat erabaki eta neurri onartu zituen euskararen normalizazioari dagokionez.

Enpresa Erakunde Publiko bilakatu zenean, ondokoa jaso zen bere estatutuen bosgarren xedapen gehigarrian:

“Donostia Kultura enpresa erakunde publikoan bi plan hauek aplikatuko dira: alde batetik, “Donostia Kulturako Udal Patronatua” erakunde autonomoaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, Donostia Kultura erakunde hau izatera igarotzean indarrean den plana, hain zuzen; eta, bestetik, “Donostiako Udaleko Kultur eta Turismo Ekintzetxea” erakunde autonomoaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, hura desagertzean indarrean dena, hain zuzen.

Haiek garatu eta berritzeko, Donostia Kultura erakunde hau izatera igarotzean “Donostiako Kulturako Udal Patronatua” erakunde autonomoan indarrean den euskararen erabilera normalizatzeko planean ezarritako irizpide objektiboek jarraituko zaie”.

Bestalde, 2014. urtean, Donostia Kulturako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zen, V. Plangintza aldiari lotua, eta Donostiako Udalaren hizkuntza-jarraibide eta lehentasun berberak kontuan izanik. Horrenbestez, horixe izan da azken urteetako euskararen ibilbidearen lan-markoa.

Dokumentu honetan jasotzen den plana aurreko planari jarraipena ematera dator, baina bertan VI. Plangintza aldi berriaren paradigma eta ildo nagusiak hartu dira kontuan.

Por último, hay que tener en cuenta la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. De acuerdo con los art. 6 y 7 de la citada Ley, el euskera será lengua de servicio y lengua de trabajo de uso normal y general en las actividades de las entidades locales, garantizando en todo caso el ejercicio efectivo del derecho de la ciudadanía a escoger la lengua oficial en la que se relacionan con los entes locales.

2. Acuerdos y medidas adoptadas por Donostia Kultura en materia de normalización del euskera

Cuando era un organismo autónomo Donostia Kultura adoptó distintas medidas y decisiones en materia de normalización del euskera.

En el momento de su transformación en Entidad Pública Empresarial, la disposición adicional de sus estatutos estableció lo siguiente:

“Serán de aplicación en el Ente Público Empresarial Donostia-Kultura el Plan de normalización del uso del euskera vigente en el Organismo Autónomo “Patronato Municipal de Cultura de Donostia-San Sebastián” en el momento de su transformación en este ente y el Plan de normalización del uso del euskera vigente en el Organismo Autónomo Centro de Atracción y Turismo del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en el momento de su disolución.

Para su desarrollo y renovación se seguirán los criterios objetivos establecidos en el Plan de normalización del uso del euskera en el Organismo Autónomo Patronato Municipal de Cultura de Donostia-San Sebastián en el momento de su aplicación.”

Por otro lado, en el año 2014 se aprobó el Plan de Normalización del Uso del Euskara correspondiente al 5º periodo de planificación, teniendo en cuenta los criterios lingüísticos y prioridades del ayuntamiento. Y ese ha sido el marco de trabajo del desarrollo del euskera en los últimos años.

El plan que se recoge en este documento viene a dar continuidad al plan anterior, y se han tenido en cuenta los paradigmas y las líneas generales del nuevo periodo de planificación.

II.- VI. PLANGINTZA ALDIAREN ERAGIN EREMUA ETA EPEA

II.- ÁMBITO DE APLICACIÓN Y PERIODO DE VIGENCIA DEL VI PERÍODO DE PLANIFICACIÓN

1. Eragin eremua

Plan honen eragin eremuak Donostia Kultura hartzen du, atal hauetan banatuta:

- Zuzendaritza
- Administrazioa eta baliabideak
- Ekonomia eta finantzak
- Liburutegi Nagusia
- Liburutegietako Unitate Tekniko Zentrala
- Haur Liburutegi Nagusia
- Kultur Ekintza
- Casares-Tomasene eta Larratxo kultur etxeak
- Egia kultur etxea
- Intxaurren eta Larrotxene kultur etxeak
- Loiola kultur etxea
- Okendo kultur etxea
- Lugaritz kultur etxea
- Ernest Lluch kultur etxea
- Aiete Kultur etxea
- San Telmo Museoa
- Festak
- Zinea
- Komunikazioa
- Antzerki eta dantza
- Musika
- Ekoizpena

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza normalkuntzarako neurriak hartzeko betebeharra jasotzen du. Honela, aipatutako dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak behartuta daude bi hizkuntza ofizialak zerbitzu hizkuntza modura bermatzera eta, ondorioz, helburu hori lortzeko dokumentu

1. Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del Plan comprende a Donostia Kultura que está constituido por las siguientes secciones:

- Dirección
- Administración y recursos
- Economía y finanzas
- Biblioteca Central
- Unidad Técnica Central de las bibliotecas
- Biblioteca Infantil Central
- Acción Cultural
- Centros Culturales Casares-Tomasene y Larratxo
- Centro Cultural Egia
- Centros Culturales Intxaurren y Larrotxene
- Centro Cultural Loiola
- Centro Cultural Okendo
- Centro Cultural Lugaritz
- Centro Cultural Ernest Lluch
- Centro Cultural Aiete
- Museo San Telmo
- Fiestas
- Cine
- Comunicación
- Teatro y Danza
- Música
- Producción

En lo concerniente a las entidades públicas de derecho privado, el decreto 86/1997, de 15 de abril, prevé la obligación de que las mismas adopten medidas tendentes a la normalización lingüística. Así, según lo establecido en la disposición adicional cuarta del citado decreto, las entidades públicas de derecho privado están obligadas a garantizar la utilización de ambas lenguas oficiales como lengua de servicio y,

honetan jasotzen diren jarraibideak betetzera. Erakunde publiko horiek Udalaren baitakoak diren heinean, euskara lan hizkuntza izateko jarraibideak ere bete beharko dituzte. Izan ere, entitate hauek jendartearekiko eredu izan behar dute udala eta erakunde autonomoak bezalaxe.

Horrez gain, 123/2008 Dekretuak, uztailaren 1ekoak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoak, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003-12-22) garatzen duenak, bere 38. artikuluan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea berrmatuko dutela xedatu eta nola egingo den zehazten du.

Erakunde publiko horietako bakoitzak bere gain hartu beharko du hizkuntza normalkuntza planaren diseinua, onarpena eta garapena. Euskara Zerbitzuak, bere aldetik, udaleko entitate publikoei aholkularitza eskainiko die, udalean aplikatzen diren hizkuntza jarraibideak erakunde horietan ere betetzen direla ziurtatzeko.

2. Eragin epea

Planaren eragin aldia onartzen den egunean hasi eta 2022ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako prozesuaren 6. plangintza aldia amaitzen den egunean bertan.

consecuentemente, a cumplir los criterios recogidos en este documento para la consecución de dicho objetivo. En la medida en que dichas entidades públicas forman parte del Ayuntamiento deberán también cumplir con los criterios de uso del euskera como lengua de trabajo. De hecho, tales organismos deben servir de modelo a la sociedad, del mismo modo que el ayuntamiento y los organismos autónomos.

Asimismo, el Decreto 123/2008, de 1 de julio, de Derechos Lingüísticos de las Personas Consumidoras y Usuarías, que desarrolla el Estatuto sobre las Personas Consumidoras y Usuarías (22-12-2003), establece en su artículo 38 que las entidades públicas de derecho privado garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en las relaciones con las personas consumidoras y usuarias, concretando cómo ha de producirse dicha presencia.

Cada una de dichas entidades públicas deberá asumir el diseño, aprobación y desarrollo del plan de normalización lingüística. El Servicio de Euskera, por su parte, ofrecerá a las entidades públicas municipales un servicio de asesoría, para garantizar que los criterios lingüísticos a aplicar en el ayuntamiento se cumplan igualmente en esas entidades.

2. Período de vigencia

El período de vigencia de este Plan será desde el día de su aprobación hasta el 31 de diciembre de 2022, es decir, la fecha de finalización del 6º período de planificación del proceso de normalización lingüística en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



Euskara

III.- EUSKARAZKO ATALAK

III.- UNIDADES ADMINISTRATIVAS EN EUSKERA

Euskarazko atalak

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, hirugarren atalburuko 2. atalean dio: beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak. Atal horiek normalizazio planen ardatz edo erdigune kontsidera daitezke eta dekretuak jasotzen duenaren arabera, euskarazko atalak izendatzen joatea da plangintzan aurrera egiteko beste tresna.

Donostia Kulturak plangintza aldian zehar euskarazko atalak izendatu ahal izango ditu era progresiboan, euskarazko atal izendatzeko baldintzak bete ahala - langileek dagokien euskara maila egiaztatua izatea, arduradunak gutxienez C1 eta arduradun politikoa euskaraz hitz egiteko gai izatea- .

Unidades en Euskera

El Decreto 86/1997 de 15 de abril, en el artículo 2 del tercer capítulo dice: son unidades administrativas en euskera, aquellas que desarrollan sus funciones principalmente en euskera. Estas unidades pueden considerarse como el eje o centro de los planes de normalización y según lo recogido en el decreto, designar gradualmente unidades en euskera es otro instrumento para avanzar en el plan.

A lo largo del citado periodo Donostia Kultura podrá designar, de modo progresivo, unidades en euskera a medida que se vayan cumpliendo los requisitos para la designación de unidades en euskera -que el personal haya acreditado el nivel de euskera perfil correspondiente, la persona responsable el C1, como mínimo, y que la o el responsable político tenga capacidad de expresarse en euskera- .



Euskara

IV.- PLAN ESTRATEGIKOA 2018- 2022

Plan Estrategikoa

Urtetako esperientzia metatuta, 6. plangintza aldirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Bikain Ziurtagiriaren ereduan oinarritutako sistema garatu du herri administrazioetako Erabilera Planak egiteko ere.

Eredu honekin lortu nahi da modu bateratuan diseinatzea bai administrazio publikoetako Planak eta baita enpresa pribatuetakoak ere.

Eredu horretan oinarritutako Plan Estrategikoa egin du Donostia Kulturak eta dokumentu honen muina diren hizkuntza jarraibideak ere zehaztu ditu, egituraketa hori bera erabiliz.

Plan Estratégico

Tras la experiencia adquirida a través de los años, la Viceconsejería de Política Lingüística para el sexto periodo de planificación ha desarrollado un sistema basado en el certificado Bikain, también para la confección de los Planes de Uso de las administraciones públicas.

Con este modelo se pretende diseñar de forma unificada tanto los planes de las administraciones públicas como los de las empresas privadas.

Se ha diseñado un plan estratégico basado en este modelo para Donostia Kultura, y valiéndose de esa misma estructura ha concretado también los criterios lingüísticos que constituyen el eje de este documento.



DONOSTIA KULTURAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022

ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK
				EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	
1. ZERBITZU HIZKUNTZA. <u>Helburua:</u> Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.	1. ERAKUNDEAREN IRUDIA. <u>Helburua:</u> Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrek euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabilia...).	1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak. <u>Helburua:</u> Jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea.	1.1.1. Errotulazio eta ikus-entzunezkoak.	0	95	100	Gazt: 5 / Gazt: 0 (Errotulu zaharrak, harrizko grabazioak, suteetako tresneria...)	
		1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak. <u>Helburua:</u> Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea.	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa oharrak eta paper gauzak.	5	90	5	95	Gazt: 5 / Gazt: 0 Kontuan hartutako hedabideak (Berria, Gara, DV, Euskadi irratia, SER) + argitalpenak, publizitatea
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK	
			58		65		Gazt: 42 / Gazt:35 Euskararen erabilera jendaurreko ekitaldietan. %50 erabilera orekatua kontsideratzen da.	
		1.2.3. Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK	
	10		80		Gazt: 10 / Gazt: 10			
	1.3. Ingurune digitala. <u>Helburua:</u> Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea.	1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia.	0	100	0	100	Gazt: 0 / Gazt: 0 Kontuan hartutakoak: web orriak, twitter...	



ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK
				EUSKARAZ		EUSKARAZ		
2. LAN HIZKUNTZA. <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	3. BARNE HARREMANAK ETA LAN TRESNAK. <u>Helburua:</u> Komunikazioan eta lan tresnetan euskara ere ohikotasunez erabiltzea.	3.3. Barne harremanak ahoz. <u>Helburua:</u> Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.	3.3.1. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak.	68		80		Gazt: 32 / Gazt: 20
			3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak.	62		85		Gazt: 38 / Gazt:15 Galdetegian barruko harremanak jaso dira telefonoz eta aurrez aurrekoak bereizi gabe.
			3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak.	62		85		Gazt: 38 / Gazt:15 Galdetegian barruko harremanak jaso dira telefonoz eta aurrez aurrekoak bereizi gabe.
		3.4. Baliabide informatikoak. <u>Helburua:</u> Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea.	3.4.1. Euskarazko bertsioen instalazio kopurua.	EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	OHARRAK
			0	100	0	100	Gehien erabiltzen direnak hartu dira kontuan	
		3.4.2. Euskarazko bertsioen erabilera.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK	
		66	75	Gazt: 34 / Gazt:25				
	4. PERTSONEN KUDEAKETA. <u>Helburua:</u> Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.	4.1. Pertsonen kudeaketa. <u>Helburua:</u> Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan.	4.1.1. Pertsonen kudeaketa.	EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	OHARRAK
				10	85	15	80	Gazt: 5 / Gazt: 5 Langileei lotutako idatzi ofizialak hartu dira kontuan (nominak, ordutegiak, kontratuak...)
		4.2. Laneko prestakuntza. <u>Helburua:</u> Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.	4.2.1. Laneko prestakuntza.	66		70		Gazt: 34 / Gazt:30 2017ko prestakuntza ikastaroen datuak
			4.2.2. Ikastaroen kudeaketa.	0	100	0	100	Ikastaroak kudeatzeko euskarriak eta idatziak (izen emateko datu basea, taulak...)

ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)		Aurreikusitakoa (%)		OHARRAK		
				EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN			
2. LAN HIZKUNTZA. <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	5. KANPO HARREMANAK. <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.	5.1. Administrazioa <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak.	38	55	40	55	Gazt: 7 / <u>Gazt:5</u>		
		5.2. Erakunde pribatuak: finantza entitateak, produktu eta zerbitzu hornitzaileak... <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.	5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK		
			83		85		Gazt: 17 / <u>Gazt:15</u>			
		6. KUDEAKETA SISTEMA. <u>Helburua:</u> Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.	6.1. PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea. <u>Helburua:</u> Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.	5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak.	EUSKARAZ	ELE BITAN	EUSKARAZ	ELE BITAN	OHARRAK	
				28		33		35	35	Gazt: 39 / <u>Gazt:30</u>
				5.2.2. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak.	EUSKARAZ		EUSKARAZ		OHARRAK	
	53				70		Gazt: 47/ <u>Gazt:30</u>			
	6.1.1. Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	6.1.2. Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna.	6.1.3. Langileen eta erakunde ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko.	6.1.4. Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan.	88		92		Gazt: 12/ <u>Gazt:8</u>	
					80		100		Gazt: 20/ <u>Gazt:0</u>	
					83		95		Balorazio positiboa hartu da kontuan (galdetegia)	
					41		50		Gazt: 59/ <u>Gazt:50</u>	



ARDATZAK	1. MAILAKO ELEMENTUAK	2. MAILAKO ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK	Hasiera (%)	Aurreikusitakoa (%)	OHARRAK
				EUSKARAZ	EUSKARAZ	
2. LAN HIZKUNTZA. <u>Helburua:</u> Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.	6. KUDEAKETA SISTEMA. <u>Helburua:</u> Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.	6.2. ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa sistema orokorrean integratzea. <u>Helburua:</u> Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.	6.2.1. Kudeaketa planaren jarraipena (0-%100)	100	100	Zuzendaritzak segimendua egiten dio euskararen gaiari.
			6.2.2. Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze maila. (0-%100)	100	100	Plan Estrategikoan sartuta dago euskara ardatz eta irizpide nagusi gisa.
			6.2.3. Euskara sortze hizkuntza. (0-%100)	73	80	Gazt: 27 / <u>Gazt:20</u> Sortze hizkuntza euskaraz + ele bitan.
			6.2.4. Dokumentuen estandarizazioa. (0-%100)	95	100	Estandarizatu daitezkeen dokumentuak kontuan hartuz
		6.3. HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapen kudeaketan integratzea. <u>Helburua:</u> erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.	6.3.1. HOElen betetze maila. (0-%100)	92	95	Gazt: 8/ <u>Gazt:5</u>

**PLAN ESTRATÉGICO PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA 2018-2022
DE DONOSTIA KULTURA**

EJES	ELEMENTOS DEL 1 ^{ER} NIVEL	ELEMENTOS DEL 2 ^º NIVEL	INDICADORES	Inicio (%)		Previsión (%)		OBSERVACIONES
				EUSKERA	BILINGÜE	EUSKERA	BILINGÜE	
1. LENGUA DE SERVICIO. <i>Objetivo:</i> Fomentar la presencia y uso del euskera en las relaciones escritas y orales con la ciudadanía, garantizando así los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos.	1. IMAGEN CORPORATIVA. <i>Objetivo:</i> En áreas de atención al público tener una conducta proactiva, que invite a utilizar el euskera con la ciudadanía (utilizando identificativos como el Txantxangorri u otros...).	1.1. Rotulación y medios audiovisuales. <i>Objetivo:</i> Garantizar la presencia del euskera en la rotulación y los medios audiovisuales en áreas de atención al público.	1.1.1. Rotulación y soportes audiovisuales.	0	95		100	Cast:5 / Cast: 0 (rótulos antiguos, extintores...)
			1.2.1. Publicaciones, anuncios, campañas publicitarias, notas de prensa y papelería.	5	90	5	95	Cast: 5/ Cast: 0 Medios de comunicación (Berria, Gara, DV, Euskadi irratia, SER) + publicaciones, papelería
			1.2. Marketing, publicidad y actos públicos. <i>Objetivo:</i> Garantizar de una forma u otra la presencia y el uso del euskera en todas las iniciativas de marketing, publicidad y actos públicos.	EN EUSKERA		EN EUSKERA		OBSERVACIONES
			1.2.2. Actos públicos.	58		65		Cast: 42 / Cast: 35 Uso del euskera en actos públicos. 50% = uso equilibrado de las lenguas
			1.2.3. Cursos y actividades dirigidas a la ciudadanía.	EUSKERA	BILINGÜE	EUSKERA	BILINGÜE	OBSERVACIONES
				10	80	15	75	Cast: 10 / Cast: 10
		1.3. Entorno digital. <i>Objetivo:</i> Garantizar que los contenidos de la página web y redes sociales estén en euskera.	1.3.1. Contenidos de la página web y redes sociales.	0	100	0	100	Cast: 0 / Cast: 0 Se han tenido en cuenta: las páginas web, twitter...



EJES	ELEMENTOS DEL 1 ^{ER} NIVEL	ELEMENTOS DEL 2 ^º NIVEL	INDICADORES	Inicio (%)		Previsión (%)		OBSERVACIONES	
				EUSKERA	BILINGÜE	EUSKERA	BILINGÜE		
1. LENGUA DE SERVICIO. <u>Objetivo:</u> Fomentar la presencia y uso del euskera en las relaciones escritas y orales con la ciudadanía, garantizando así los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos.	2. RELACIONES CON LA CIUDADANÍA. <u>Objetivo:</u> Fortalecer el uso del euskera en los servicios para que quien haya elegido ser atendido en euskera reciba la prestación en dicha lengua.	2.1. Relación escrita con la ciudadanía, al ofrecer el servicio o entregar el producto. <u>Objetivo:</u> Garantizar que los escritos para la ciudadanía estén en euskera.	2.1.1. Relaciones escritas.	10	80	10	90	Cast: 10 / Cast: 0	
		2.2. Relación oral con la ciudadanía al ofrecer el servicio o entregar el producto. <u>Objetivo:</u> Realizar en euskera la atención oral con la ciudadanía.	2.1.2. Respuestas en euskera a la demanda en euskera.	70	26	100	0	Cast: 4 / Cast: 0	
2. LENGUA DE TRABAJO. <u>Objetivo:</u> Incrementar el uso del euskera en las relaciones de trabajo.	3. COMUNICACIÓN INTERNA Y HERRAMIENTAS DE TRABAJO. <u>Objetivo:</u> Utilizar el euskera habitualmente en la comunicación y las herramientas de trabajo.	3.1. Paisaje lingüístico asociado al trabajo. <u>Objetivo:</u> Garantizar en euskera los materiales de oficina, papelería, maquina de café, etc.	2.2.1. Recepción.	EN EUSKERA		EN EUSKERA		OBSERVACIONES	
